



AKTA ZK.: 11/2019

2019ko ekainaren 21ean, 13:00etan, Gasteizen bildu da **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkura**, aldez aurretik deialdia eginda, eta honako gai-zerrenda hau jorratu da:

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.
2. Espediente berriak esleitzea.
3. Galderak eta eskaerak.

PRESIDENTE:

Javier Bikandi Irazabal

BATZORDEKIDEAK:

María Soledad Gutiérrez Rodríguez

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

IDAZKARIA:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.

2019/000094 espedientearen ebazpen-proposamena

Ondoren, batzordeburuak hitza eman dio proposamena aurkeztu duen kideari. Proposamena aurretik bidali zen, batzordekideek azter zezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 55/2019 Ebazpen gisa.

2. Incidencia en audiencia y alegaciones del expediente 2019/000077 (Resolución 49/2019)

Jarraian, espedientea izapidetu duen batzordekideak azaldu du Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitu nahi izan duela, 49/2019 Ebazpenaren jakinarazpena iritsi zaioenean, aurkeztu zituztela, bai, alegazio batzuk, entzunaldi-epe barruan, nahiz eta ebazpenean ezetz jartzen duen. Ikusi da agiri horiek paper artean galduta-edo geratu zirela eta, baietz, alegazio horiek bidali zituztela, bai, gure batzordera. Hala ere, alegazioak eta ebazpenean erreklamazioari ezetz erantzuteko erabili ziren arrazoibideak jite berekoak dira. Edonola ere, pentsatu genuen erreklamaziorik gaia zertan zen jakin behar zuela, eta, horregatik, batzorde honek Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari aholkatu zion azalpen soil bat eman ziezaion Larreategi jaunari, mintzagai ziren urteetan zenbat eskabide orokor izapidetu ziren jakiteko bezain beste datuarekin, gutxienez. Bada, alegazio-idazkian bertan bazen informazio

hori, eta, beraz, Batzorde honek uste du egokia dela datu horiek ematea, eta aholkua betetzea horrenbestez. Gure erabakia da, hortaz, datuok erreklamaziogileari bidaltzea.

3. Espediente berriak esleitzea

2019/000163	María Soledad Gutiérrez Rodríguez
2019/000164	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguinori

4. Galderak eta eskaerak.

Ez da eskaerarik egin, ezta galderarik ere. Beraz, batzordeburuak bilera amaitutzat eman du 13:00ean.

Idazkaria

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

Kidea

María Soledad Gutiérrez Rodríguez

Batzordeburua

Javier Bikandi Irazabal